



Intxaurrondo Zaharra



Fermin Muguruza auzoan

Jaietan da Intxaurrondo Zaharra. Jaiak hasita dauden arren, asteburuan izango dira ekitaldirik botoloenak.

Ezustekoz beteta datoz aurtengoan Intxaurrondo Zaharreko jaiak. Ostira-

lean, hilak 10, Fermin Muguruza auzoan izango dela aurreratu digu Jai Batzordeko Unai

Asurmendik. "Jon Elizalde, auzoko tronboi jotzaile nagusia Ferminekin ibili da biran,

eta kontzertua emango dute gurean. Kontrabanda izenarekin etorri beharrean, Kontrakanxa Sound Sistem izenarekin etorriko dira", azaldu digu. Kontzertua 22:30ean izango da Intxaurrondo kalean.

Larunbata arratsaldean, herri arteko "desafiyua" izango da. Egia eta Intxaurrondo aurrez aurre ariko dira, herri kirolean, dantzan eta bertsoan. Barre egitea ere ezinbestekoa izaten da jaietan, eta horretarako aukera ezinhobea emango dute, 23:00etan "Irola eta Pagadi" imitatzaileek "Orokorrean, herri guztietan aurki daitezkeen pertsonak imitatzen dituzte, baina pertsona famatu batzuena ere egingo dute", azaldu digu Asurmendik.

Egitaraua

Ostirala 10

17:00 Haur krosa eta kronoigoera
17:30 Taloak parkean
18:00 Buruhandiak eta erraldoiak parkean. Ondoren, txokolate jatea
18:30 Poteo kalejira, Sastakari txarangarekin
19:00 Pala txapelketaren finala
20:00 Gazte asanbladak antolatuta, gazteentzako jokoak Intxaurrondo kalean
21:30 Afari txoa, Intxaurrondo kalean
22:00 Danborrada herrikoia
22:30 Kontzertua Intxaurrondo kalean. Bad Sound Sistem eta

Kontrakanxa Sound Sistem. Ondoren, DJ Laita eta DJ DZ

00:30 Zezensuzkoa

01:30 Helduentzako jokoak

Larunbata 11

12:00 Haur danborrada
16:00 Mus txapelketa, Intxaurrondo kalean
17:00 Mural margotzea parkean, haurrentzat eta nahi duten helduentzat
17:30 Taloak parkean
18:30 Herri arteko desafioa: herri kirolak, dantzak eta bertsoak
18:30 Buruhandiak eta erraldoiak sagardoa eta Kalejira Sastakari txarangarekin
21:30 Barrikotea

23:00 Imitatzaileak eta irrintzi lehiaketa

01:30 Helduentzako jokoak

Igandea 12

14:00 Herri bazkaria, Intxaurrondo kalean
17:00 Trenbidea estaltzearen aldeko festa: Sardina jatea, sagardoa eta herri matxinada
Asteartea 14
12:00 Meza
13:30 San Rafaelgo itsuentzako bazkaria
14:00 Erretiratuentzako bazkaria eta dantzaldia
18:00 Erromeria Intxaurrondo kalean. Musika, sagardoa, txaloak eta abar

Kronoigoera

Azken bost urteetan ahaztuta egon den ekitaldi bat ere berreskuratuko dute: kronoigoera. "Garai batean arrakasta handia zuen kronoigoerak, baina urteen poderioz desagertu zen. Aurten, berreskuratuko saikera egingo dugu DBHko gaztetxoekin", azaldu digu Jai Batzordeko kideak. Parte hartu nahi dutenek ordu erdi lehenago eman behar dute izena, Zulo Zahar elkartearen. Ondoren, bizikleta hartu eta bideari ekingo diote: Justo Elizaran Pasealekutik Lizardiako aldapa igo beharko dute. Ekitaldiak arrakasta badu, datozen urteetan berriz antolatu tuko dute.



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

**Intxaurrondoko
sukurtsalaren partetik
ZORIONAK!**

Lizardi bidea 2